

ERREPORTAJEA SAGARDOA EGITEKO PROZESUA • GEHIGARRI BEREZIA SAGARDOTEGIEN GIDA  
GEHIGARRIA KILIBARREN • KIROLA MIKE TAGG KORRIKALARIARI ELKARRIZKETA

# Barren

ASTEKARIA



## Sagarraren zuku preziatua

"SAGARRAK AXALA EDER, HARRA BERDIN AIHER" (esaera zaharra)

EL GOIBATU A S T E K A R I A

maur FICZRWITZd

Leilefl ReZR11117d

bigarren RCZRURIZU



# EUSKAL ESKOLA PLIBLIKOAREN ERAMISKETA Uriarrilaren 1tik Otsailaren 6ra Kull **Man** El oibarko Herri Eskolako Ate Irekien Eguna Otsailaren 3a



## MATRIKULAZIOA

### 2003 - 2004

Haur, Lehen eta Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxetan  
OTSAILAREN 3tik 14ra



### Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8  
Tel.: 943 74 08 79  
E-maila: [012777@hezkuntza.net](mailto:012777@hezkuntza.net)



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA  
UNIBERTSITATE eta  
IKERKETA SAILA



### Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 « Arregitorre, 2  
Tel.: 943 74 80 19  
E-maila: [bulegoa@elgoibar.hezitek.net](mailto:bulegoa@elgoibar.hezitek.net)

# 40 URTE 40 ISTORIO

ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA



## 4 Ikastolaren lehen pausoak

**G**au-Eskolako arduradunak nekatuta zeuden batetik bestera ibiltzen euskarako eskolak emateko. Ondorioz, 1960an lokala erostea erabaki zuten. Atrebetzia handia garai hartarako. Baina lanerako gogoia eta ilusioa traba guztien aurretik zeuden. Orduko 125.000 pezeta behar ziren lokala erosteko. Eta dirutza hau batzeko, bono bidezko diru-biltze kanpaina jarri zuten martxan herriko euskaltzaleek. Herriaren erantzuna primerakoa izan zen eta 150.000 pezeta lortu zuten.

Diru honekin Loritoko lokala bezala ezagutzen duguna erosi zuten. Baina lokala iluntzetan bakarrik erabiltzea pena zela pentsatuta, egunez ere lokala aprobetxatzea erabaki zuten.

*"Garai hartan hasi ziren gure seme-alabak Escuela Nacionalean. "Padre nuestro que estds en los cielos" errezatzen etortzen zitzaizkigun etxera. Honek ematen zizkigun kalanbreek eta nahigabeek eraginda erabaki genuen lokala egunez ere aprobetxatzea. Gure umeei, gutxienez, otoitzak euskaraz erakusteko intentzioarekin jarri genuen martxan ikastola".*

Ordurako, herriko euskaltzaleei ezaguna egiten zitzaien "ikastola" izena. Donostian eta Hernanin martxan ziren ikastolak. Bietara jo zuten informazio eta laguntza eske. Eta Donostian eta Hernanin ikusi eta entzundakoak eman zien indarrarekin eta ilusioarekin, 1962ko maiatzean, Itziar Ajuriak eta herriko 29 umek idatzi zuten Elgoibarko Ikastolaren historiaren lehen orrialdea. Oraindik ere amaitu ez den historiaren estreinako orrialdea, hain zuzen ere.

*Felix Etxeberria eta Imanol Larrañaga*



## Ikusi gabekoak

Bushekin eta Galiziako txapapotearekin luzerako daukagu oraindik ere. Hau hasi baino ez da egin. Joan den astean, lan kontuak zirela-eta, Bakion izan nintzen, hondartzan, telebistarako gauzatxo bat grabatzen. Txapapotea zer den ez baldin badakizu, Debako hondartzan oinazpian edo txankleta azpian pegatzen ziren galipot pusketak direla esango dizut, hondartzatik etxera eramaten genuen arrasto beltza. Horixe etorri zitzaidan gogora Prestige ontziaren hondakinak Bakioko hondartzan topatu genituenean. "Kontxo!", esan zuen batek, "joder! horrelako pegoteak mordo bat hartu izan ditut nik txikitari hondartzan!". Hala da. Duela urte batzuk oso ammta zen hondartzara joan eta etxeratzean oinak galipot orbanek beteta edukitzea. Orduan inori ez zitzaion inporta inork galipot isurtzen bazuen itsasora. Orain, ordea, ingurumenaren lepotik botoak lor daitezkeela konturatu direnean, gauzak ederki aldatu dira. Orain denok gara ekologistak, eta politikorik arduragabeena ere ekologista amorratu bihurtu da.

Prestige-ek eskaini dizkigun irudi eta argazki ahaztezin guztien artetik, bada oraindik ikusi ez dugun bat, eta ikusiko ez duguna, gainera: Fraga Muxiako hondartzan bainatzen.

Ainhoa Lodoso

Kexak .....	:
motz MOTZ .....	:
gehigarria .....	1
kiROLAk .....	2
aGenda .....	24

## MENDAROKO IPUIN LEHIAKETARI BURUZ... ERANTZUNEZ

Mendaroko Udalak antolatutako Gabonetako ipuin lehiaketaren inguruan hitz batzuk azaldu beharrean aurkitzen naiz. Zure gutunean Mendaroko udaletxearen fede ona dudatan jartzeaz gain, nirekin, Txomin Aranberri zinegotziarekin, sartzen zara batez ere. Zuk azaltzen duzunez, epaimahaiko kidea izan nintzen eta nire alahari egokitu zitzaion saria ez zela kasualitatea izan aipatzen duzu. Bestalde epaimahaiko kideen egokitasuna dudatan jartzen duzu beraien kualifikazioa dudatan janiz.

Angel Basterretxea (Mendaroko apaiza), Luis Ma Salegi ( San Jose Ikastetxeko Zuzendaria) eta Nerea Larrañaga udaletxeko kultur dinamizatzailea izan ziren epaimahaiko kideak. Ikusten duzun bezala ni ez nago epaimahaiko kideen artean, baina kultura zinegotzi izatean niri egokitu zitzaidan saria ematera joan behar izana.

Bestalde edozein lehiaketatan egiten den bezala, epaimahaiko kideek ez dute jakiten noren ipuinak irakurtzen dituzten. Irakurritako ipuinen artean sarituak zeintzuk izango diren aukeratu dutenean, orduan esaten zaie idazleen izenak. Ipuinak aurkezterako orduan bi kartazal aurkeztu behar baitira, bat idazlearen datuekin eta bestea ipuinarekin. Hau jakiteko lehiaketaren arauak irakurtzea besterik ez dago.

Oso gogorra iruditzen zait zuk egiten dituzun salaketa horiek. Lehenik eta behin, epaimahaiko kideen kualifikazioa eta fede ona dudatan jartzen baituzu.. Bigarrenik, nirekin zinegotzi izate hutsarengatik sartzen zarelako, eta azkenik, eta uste dut garrantzitsuenetakoa, nire alabaren sentimenduekin jolasean zabilzala pentsatzen dudalako. Bere aita zinegotzia delako ez al dauka herriko ekintzetan parte hartzeko eskubiderik? Bere ipuinak besteenak baino eskasagoak izan behar al dira aita zinegotzia duelako? Irakurri al duzu bere ipuina saria merezi ez duela hain garbi azaltzeko? Zure gutuna ikusita, hurrengo urtean ospatuko den Gabonetako ipuin lehiaketako epaimahaiko kide izateko proposatzen zaitut.

**Txomin Aranberri**  
**Mendaroko Euskerako Udal Zinegotzia**  
**N.A.N. 15.346.968-B**

## 50 EURO OSTU ZITUEN LAPURRARI

Joan zen zapatuan, urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 19:00ak eta 19:15ak bitartean Kiroldagiko igerilekuko aldageletan zegoen mutil lirain eta guapoari esan nahi diot itzuli diezazkiola lapurtu zituen 50 euroak bere jabeari, lapurrak oso ondo ezagutzen baitu zein den diruaren jabea. Hala gertatzen ez bada, lapurraren aurka neurriak hartuko ditut.

E.A.  
N.A.N. 15.344.752

# Urruzunoren begi ezkutua Bakarrik edo?



Hamaika lagun elkartu ginen egun hartan. Batzuk txanoak jantzita zeuzkaten, beste batzuk baita ere guante epelak eta norbaitek bazeraman ere bufanda beltza. Hotza egiten zuen, termometroak zero azpitik markatzen zuen, ohizkoa ez zen gertakizuna. Derrepente kamiseta batez bakarrik jantzirik zetorren gazte bat agertu, eta bere txakuna zaunka hasi zitzaion beste jendeari.

Zurrunbiloa jendearen artean, nor ote zen mutil hori galdezka, herrikoa ez baitzen. Ezaugarri bezala boladun txano bat zeraman, eta praka gorriak bota handi batzuek jasten zituztelarik bere oinak. Azkenean Papa Noel, edo beste lar batzuetan ezagutzen den bezala agertu zen San Nicolas gure Elgoibarko herrian, berri onak ekarriz.

**Joseba Esnaola**

ASTEKARIA

# BaRRen

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
o 943 74 41 12  
Publizitatea:  
o 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-maila:  
[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)  
Helbide informatikoa:  
[www.topagunea.com/barren](http://www.topagunea.com/barren)  
ARGITARATZAILA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILA Jaione Unanue Aotemismaziox Amaia Rodriguez GERENBIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Eduerne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARPTA Gotzon Garateren liburutik INPRINATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.100 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

 ELGOIBARKO IZARRA  
21.1.11.16A

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.










## ra1011

- Parrokiko Misio taldeak Errosario kalean jarri zuten dendan parte hartu duten herritar guztiak eskertu nahi ditu: "Denda jarri dugun 7. urtea izan da hau, eta berriro ere, jendeak oso ondo erantzun du. Eskerrik asko Odria familiari eta Manu Leizaberi beren laguntzagatik. Mundu aberatseko kontsumitzaileak, hirugarren munduko produktoreekin uztartu nahi izan ditugu, kontsumoaren bitartez solidario izatea da gure helburua. Eskerrik asko denori zuen laguntzagatik".


- LX Nazioarteko Juan Mugerza Krosaren antolatzaileek, Udal Kirol Patronatuak eta Mintxeta Atletismo Taldeak herritarren laguntza eta aldi berean, aurtengo arrakastaren bultzatzaile izatea eskertu nahi dute: "Zuen laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke egunkarietako titularretan eta mundu mailan hain aipatua izan den Elgoibarko herriaren izena agertzea. Hurrengoan ere komunikabideek elgoibartar guztien laguntza eta ahalegina lau haizeetara zabal dezaten, eskerrik asko guztioi".



- Elgoibar Ikastolak Gabon Zahar Feria Egunean txosnara hurbildu ziren guztiak eskertu nahi ditu: "Eskerrik asko gure txosnara hurbildu zineten guztioi, eta bereziki, Armueta, Ziarda, Barrutia eta Benito harategiei eta bertan lanean aritu zineten guztioi".



- Herritar batek San Pedrotik gorako baserrietara (Aubixa, Goiko-Etxe, Armaxio...) doan errepidea, zenbait zatitan egoera kaxkarrean dagoela adierazi digu: "Auto ugari eta zenbait autobus hurbiltzen diren ingurunea da hau, eta zenbait tartetan ez dago bi ibilgailu batera igarotzeko zabalera nahikoa. Honetaz gain, pitzadurak ugariak dira errepide osoan zehar. Udaletxera hainbat eskutitz bidali dira konponketa lanak ahalik eta lasterren burutu ditzan, baina ez da inolako erantzunik jaso".



## Santa Agedako koruak larunbatean eta asteartean aterako dira koplak kantari

Etxegiña taldekoak kalez kale ibiliko dira eta Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri

**A**spaldikoa da Santa Ageda bezperan kantuan eta eskean ateratzeko ohitura. Aurten ere, bi talde ibiliko dira koplak kantari: Etxegina taldekoak herriko kaleak alaituko dituzte, eta Elgoibarko Izarrakoak baserriz baserri arituko dira koplak kantari.

Ohiturari jarraituz, Santa Eskeko Etxegiña Taldea, bihar, otsailak 1, aterako da, Elgoibarko kale eta auzoetan zehar koplak kantatzera. Bi taldetan banatuta, goizeko 9:00etan aterako dira Bolatokitik, (San Bartolome elizaren atzean dagoen parketik) eta Elgoibarko kale eta auzoak igaro ostean, Errosario kaleko Ama Birjinari salbea abestuko diote. Koplariak Kepa Urain eta Jesus Urizar izango dira. Eguerdiko aldean, Baltasar Pilotazale Elkartearen urtero egiten den bazkariarekin amaituko dute eguna. Bildutako dirua herriko behartsuentzat izango da,

### 10 urtez baserriz baserri

10 urte beteko ditu aurten baserriz baserri egiten den Santa Eskeak. Urtero bezala, otsailaren 4an aterako dira



*Hamar urte beteko ditu aurten baserriz baserri egiten den Santa Eskeak.*

Elgoibarko baserriak kantuz alaitzera. Eguerdiko 14:30etan hasi, eta bi taldetan banatuta, San Migel, San Pedro, San Lorentzo eta Urruzuno bailaretako baserriak bisitatuko dituzte. German Meabebasterretxea, Ziarda, Areitio eta Narbaiza arituko dira koplari lanetan, eta Baltzola anaiak eta Ekaitz eta Arantzak jarriko dute trikiti doinua. Zortzi ordu luzez kantuan aritu ostean, indarrak

berritzeko San Migelgo elkartearen egingo dute afaria.

### Ikasleak koplak kantari

Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleak ere, Santa Ageda bezperan kantuan aterako dira. Ikastolakoak arratsaldean, Madalatik Plazarainoko ibilbidea egingo dute, eta Herri Eskolakoak Urasandi auzoan aterako dira koplak kantatzera.

## Malaysiako Enpresa Garapenerako Ministroak IMH bisitatu zuen



**M**alaysian Spanish Institute (MSI) proiektuaren barnean, Dato' Mohamed Nazri bin Tan Sri Abdul Aziz Malaysiako Enpresa Garapenerako Ministroa, IMHn izan zen urtarrilaren 23an. Guillermo Garate Elgoibarko alkatea, Alberto Ortueta IMHko lehendakaria eta AFMko (Makina Erremintaren Fabrikatzaileen Elkarte) zuzendaria, eta Joxean Egaña IMHko zuzendaria ere, bertan izan ziren, ministroari ongi-etorria emateko. MSI proiektuaren xehetasunak azaldu ostean, ministroa IMHn ingeniariaritzaren ikasketak burutu dituen malaysiar talde batekin bildu zen. Ikasle hauek apirilean

bukatuko dituzte beren ikasketak, eta zortzi hilabete Elgoibarren pasatu ostean, Malaysiara itzuliko dira MSI proiektua irakasteko asmoz.

MSI proiektua Malaysiako Gobernuak jarri zuen martxan joan zen urteko irailean, Espainiako Gobernuaren laguntzarekin. Hiru urtetako proiektu hau IMHtik kudeatuko da, eta bertatik jasoko ditu asistentzia tekniko eta tutoretza. Makina Erreminta fabrikatzaileen sektoreak (AFM), estrategikotzak jotzen dituen proiektu hauek, konpetitibitatea hobetu eta Asiako hego ekialdeko merkatuan, erremintaren sektorea bultzatzen laguntzen dutelako.

## Udaleko Giza Baliabideetako teknikariaren kontratazioa bidegabekotzat jo du EAEko Auzitegi Gorenak



Sozialista Abertzaleak-eko kideek prentsaurrea eman zuten sententzia baloratzeko

**A**maitzear dagoen Legealdiaren hasieran, AEHk eginiko salaketaren sententzia atera da. Zubizarreta Consulting enpresak eginiko lana, Elgoibarko Udaletik bideratuta zegoela salatu zuten, eta Auzitegi Gorenak arrazoiak eman dio. "Enpresa hau, Udalaren lana hobetzeko diagnosi bat egiteko kontratatu zuten. Enpresa honen arabera, Elgoibarko Udalak Giza Baliabideetarako teknikari bat behar zuen. 2.000.000 pezetako kostua izan zuen lan honek". EHk, ordea, beste ondorio batzuk atera zituen. Asier Zengotita Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotziak prentsaurrean esan zuenez, "Udaleko funtzionamendua zentralizatu eta erabaki guztiak hiru pertsonaren esku; Alkatearen, alkate ordearen eta Giza Baliabideetarako teknikariaren esku geratzea zen helburua".

Alex Mandiola Giza Baliabideetako teknikaria kontratatzeke modua salatu zuen EHk: "Bere funtziorako euskara maila oso bajua zeukan, eta herri mailan jarri genuen salaketa. CCOO sindikatuak Euskal

Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenera eraman zuen salaketa, eta azaroan atera zen sententzia. Honen arabera, Alex Mandiolaren kontratazioa ez zen bidezkoa izan". Sozialista Abertzaleak taldeko kideek azaldu zuten, "ez da Udalak honelako kontratazioa egiten duen lehenengo aldia. Aurreko Legealdian ere Herri Batasunak beste salaketa bat jarri zuen, eta orduan ere, kostuak ordaintzea tokatu zitzaion. Oraingo honetan, 16.000.000 pezeta inguru kostatu zaio teknikari hau kontratatzea. Udalak herritarren dirua optimizatu eta inbertitu egin behar du, eta ez alkatearen kriterioen arabera, bere Gobernu bazkideen babesarekin. Legealdi honetan behin eta berriro izan dugu alkatearen protagonismo eta prepotentzia alardeak ikusteko aukera". Legealdia bukatzean, Sozialista Abertzaleak taldeko zinegotziak bi gauza eskatzen dizkiote alkateari: "Ez dezala beste kargu publikorik hartu, eta teknikariak Udala uzten duenean, egun gutxiren epean berarekin joan dadila".

## Elgoibarko populazioa %3,41 jaitsi da 1990tik 2002ra

1996. urtean, 10.989 biztanle zituen gure herriak, baina urteen poderioz, populazioak behera egin du Elgoibarren. 2001. urtean, 10.667 biztanle zituen, eta argitaratu diren azken datuen arabera, 2002an ere Elgoibarko populazioa jaitsi egin da, egun 10.614 direlarik Elgoibarko biztanleak. Datu hauek adierazten duten moduan, Gipuzkoako populazio orokorrak gora egin du 2002. urtean 682.977 biztanle, iaz baino ia 3.000 lagun gehiago. Kostaldeko herriak izan dira gorakada handiena jasan dutenak, Donostia, Zarautz eta Hondarribia, batez ere. Barnealdekoak, berriz, behera egin dute. Hauen artean, Eibar eta Arrasate izan dira kaltetuenak.

## Txankakuaren Gabonetako zozketako 3. eta 4. sarituak ez dira azaldu

Txankakua Merkatarik Elkarteak adierazi digunez, Gabonetako zozketako 3. eta 4. zerbaki sarituak ez dira azaldu. Otsailaren 7a izango da zerbaki irabazleak agertzeko azken eguna. Hauek dira zerbaki sarituak: 3. Saria: 18.298 (erreserba 62.428), eta 4. Saria 26.711 (erreserba 9.866). Hirugarren sarituak 300 euro jasoko ditu, eta laugarrenak 150.

**1**

**Iriondo** TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu  
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 Tel: 943 74 00 15

**)IVTURAK**

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2. 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

## AULIA (Legorreta)

- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatzaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 140 lagun eserita nahiz zutik.



DOLAREDUN  
sagardotegia

Aulia Enea baserria tr 943 80 60 66

## EIZMENDI (Hernani)

- **NAGUSIA:** Maixa Eizmendi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 160 lagun.



DOLAREDUN  
sagardotegia

Osinaga auzoa 943 55 64 05

## GURUTZETA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzeta S.A.T.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarrilaren hasieratik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 110 lagun zutik



DOLAREDUN  
sagardotegia

Oialume bidea, 59 943 55 22 42

## ISASTEGI (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik maiatzera arte.
- **LEKUA:** 200 lagun.



DOLAREDUN  
sagardotegia

Aldaba-Txiki auzoa, 15 943 65 29 64

## KORTA (Gabiria)

- **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte guztia.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta mariskoa.
- **LEKUA:** 110 lagun.



Korta sagardotegia 943 88 71 86

## LARREGAIN (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte. Astelehenetan eta igande gauetan itxita.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 120 lagun.



DOLAREDUN  
sagardotegia

Larregain etxea, Ereñozu Ir 943 55 58 46



## GOIKO-LASTOLA (Hernani)

- **NAGUSIA:** Lazaro Etxabe Zerain.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtariletik apirilaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 80 lagun.



Ereñozu Auzoa g 943 55 32 72

## IZETA (Aia)

- **NAGUSIA:** Manuel kuretagoiena
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte osoan irekita, sagardotegia eta jatetxea.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagunentzako.

**DOLAREDUN**  
sagardotegia




Izeta baserria (Urdaneta bidea) z' 943 13 16 93

## OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopetegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtariletik apirilera arte. Asteazkenetan itxita. Udan, erretegia.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 140 lagun.

**DOLAREDUN**  
sagardotegia



Otatza baserria 943 80 17 57

## SAGARDOAREN EZAUGARRIAK

**L**uskal Herriko sagardoaren bere ezaugarri bereziak erabilitako sagarretik eta sagardotegiko tekniketatik datorzkie. Aipagarrienak honako hauek dira:



**Lehortasuna:** Lehor-puntua igarri behar zaio; edaten bukatzean mingainari heldu dakiola, alegia.

**Bizitasuna:** Ahosabaiaren bizigarri eta freskagarri behar du izan.

**Gozotasuna:** Edaterakoan suabea behar du.

**Garbitasuna:** Bai botilan baita edalontzian ere, ia gardena izan dadila.

**Usaina:** Sagar gozoaren usaina eta, gehienez ere, ia ohartezina den garratz-puntu bat izango du; kupel edo kortxo usain arrastorik eta min edo kiratsik gabea.

**Txinparta:** Sagardoa edalontzira bota ondoren txinparta bizi sortuz erraz hautsi behar da, sortutako aparra bertan desegin eta desagertuz.

**Kolorea:** Kolore hori-berde garbia izan behar du eta ontzitik aterata eta berehala belztuko ez dena.

**Gorputza:** Ez du oso lodia edo oso mehea izan behar edalontzian hustean, ipurdian laino antzeko baten seinalea utzi beharko luke.

## SARASOLA (Asteasu)

- **NAGUSIA:** Inaxio Sarasola
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtariletik apirilera arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun, eserita nahiz zutik.

**DOLAREDUN**  
sagardotegia



Beballea Auzoa 943 69 02 83

# Sagardoa egiteko prozesua

## PAUSOZ PAUSO

*Oraindik ere sagardoa etxean egiteko oktura mantentzen da Elgo/barko hainbat baserrian San rorentzo ballarako Gelatxo baserriqr 800 litro sagardo egin dituzte aurten e'xean kontsumitzeko. Duela S urte ODarko /frrate hailaran dagoen*

*Argina haserrink ekarri zuten 60 urtetik gora dituen dolare zaharra eta bertan egiten dute sagardoa. 7uanita 'ixurrukak txikitatik ezagutu du sagardogintza eta etxean ikustetik d(as/ da l)'erak azaldu digu pausoz pauso sagardoa egiteko prozesua.*

### **1. URRIA ALDERA BATBEN DIRA SAGARRAK.**

Gelatxo baserri inguruko sagarrondoetan batutakoekin nahikoa izaten dute. "Lehen lau baserriak lagunak elkartu eta Amuskategi baserriko dolarian eitzen gendun sagardua elkarlanian. Upai Txikin, Musillon eta Urrategin ere badaitez dolariak".

### **2. XEHATZE PROUSUAM EMATEN ZAIO HASIERA.**

Matxaka izeneko makinan botatzen dira sagarrak. Makina honek xehatzen ditu sagar aleak eta operazio honen ondorioa patsa izenez ezagutzen da; fruituaren mamiaz ari gara. "Gaur egun motor elektriko baten indarrakin funtzionatzen dau, baina lehen bi gupil eskuen indarrez mobitxuz ein bihar zan lan hau".



### **3. PATSA EDO SAGARRAREN MAMIA PRENTSATZBLO DOLAREAN SARTZBI DA.**

Matxaka baino pisu bat beherago dago prentsa Gelatxon eta bertara jausten dira sagar zatiak. Prentsan, sagarraren mamia dolarearen zoluaren kontra zapaltzen da. Prentsaketa behin eta berriz egiten da arreta handiz, sagarrari zuku guztia atera arte. Prentsaren zolua eta paretak, zuku kupeleruntz pasatzen utziko dituen zirrikitez horniturik daude. "Gure prentsan 200 litro atera leikez".

### **4. KUPEIFRATZEA**

Dolaretik datorren muztioa kupeletan sartzen da eta bertan fermentazio edo irakin prozesuari ematen zaio hasiera, modu guztiz naturalez. Sagardoak sagardo izatera iritsi aurretik bi fermentazio prozesu pasa behar ditu; hauek pasatu eta gero, kupelaren goiko aldean txapela izeneko geruza apartsua osatzen da. Kupela temperatura berdinean (10-15 gradu) eta mugitu gabe mantentzen saiatu behar da datozen hilabeteetan.



### **GRADUEN NEURKETA.**

Graduaketa zehatz batera iritsi behar da sagardoa. "Poxpola jarri eta emendatzen bada, indar gehixegi dakan seinalia da. Termometro antzerako bat erabiltzen dogu graduaketa neurtzeko". Azken fasea sagardoa botilaratzea da. "Txanpain botella hutsak erabiltzen ditzugu". Azken emaitza sagardo erabat naturala da. "Gure sagarduak ez daka tranparik, guztiz naturala da. Goizian botellia ireki eta iluntzerako sagarduan koloria belztu eitzen da. Sagardotegixetako sagarduak, berriz, kolore berdina mantentzen da".



**ASIER ARZAMENDI**  
**Oinberri Zentru Podologikoa**



## OINEN OSASUN PREBENTZIOA

Orberak bere hankak zaintzeko orduan oso garrantzitsua da neurri egoki batzuk jarraitzea, mingarriak izan ditezkeen lesioen agerpena ebitatzeko. Hona hemen zure hanken osasuna mantentzeko kontseilu batzuk.

- Bakoitzaren bizimodura eta lan ekintzetara egokitzen diren oinetakoak erabili behar dira. Ez dezagun ahaztu zapata estuegiak, txikiak edo takoi altudunak hanketako arazo batzuen errudunak izan daitezkeela. Hankara ondo egokitzen ez den zapata, kailu, juanete edota, atzazaleta-ko arazoaren sortzaile izan daiteke.

Noizean behin podologoari bisita egitea ohitura bihurtu beharko litza-teke, oinak aztertu eta analisi oso bat egiteko.

Hanken higiena egunerokoa izan behar da, eta garrantzitsua da ondo lehortzea, ondoak sortu ez daitezen.

Oin gimnasia: egunero minutu batzuk nahikoa dira, hanketako hezur eta muskuluak indartzeko, eta odol zirkulazioa hobetzeko.

• Posible den neurrian, oin hutsik ibiltzeak on egiten die hankei, oxigenatu egiten dira. Toki publikoetan ordea, ez da komenigarria, infekzioak hartu baitaitezke.

• Gogortasun eta kailuak ager-tzen badira, espezialistari erakutsi.

• Hanketan krema hidratante ez koipetsua ematea komeni da.

Atzazalak zuzen moztu behar dira, eta ez motzegi.

Gogoratu hanken egoera gor-putz osoan islatzen dela, beraz, merezi duten atentzioa jar iezaezu.



Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENe 943 74 41 12ra

# osasuna



### MASAJ ISTAK

**Victoria Iraegi**

P.M. Urruzuno, • Tel: **943 74 07 70**

Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen Belardenda**

(Ivledikuntza naturaia, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)

San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya Belardenda**

(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. informa zaitetz)

San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus Optiko-optometrista**

San Bartolome, 1U • iel: **943 74 37 34**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**

(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIKAK

**Itziar Sarasketa**

San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Ibiltzen**

Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

Funnero° 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**Iñaki Rivero**

San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**

Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**

Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Larunbatetan: 10:00-13:00

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu **943 74 37 04ra**

POPULAZIO DATUEN ARABERA, GIPUZKOARROK KOSTALDERA JOATEKO TENDENTZIA DUGU,  
BIZI-KALITATE HOBEAREN BILA

## BIZI KALITATE ONEKO HERRIA BEGITANTZEN AL ZAIZU ELGOIBAR?



**IÑIGO ARAUJO**

23 urte, ikaslea

Bai. Azpiegitura aldetik ondo dao, autopista sarrera bertan dakagu, eta Gipuzkoako industria gehixena, hemen biltzen da. Geografikoki ere, ondo kokatuta dao, mendixa dakagu, eta kostia 13 kilometrotara.

**MARGARITA LARRAÑAGA**

60 urte, etxeoandrea

Bai. Kanpora bizitzera juteko aukeria euki dot, baina ez naiz jun. Hemen danetik dakagu, eta ni oso pozik bizi naiz Elgoibarren; gainera kostia 13 kilometrotara dakagu.



**PASCUAL MOLINA**


57 urte, jubilatua

Azkenaldian asko hobetu da, bi zubi berri eraiki, eta etxebizitza berri asko egin dituzte, baina dirua edukiko banu, joango nintzateke kostaldera.

**GASPAR JIMENEZ**

19 urte, elektrizista

Ez naiz Elgoibarren bizi, baina hemen egiten dut lan, eta ez nuke bertan bizitzeko arazorik izango. Udara begira, kostaldean biziko nintzateke, baina ez dut uste bizi-kalitate hobe eskaintzen dutenik.



**MAITE GARCIA**

30 urte, estetizista

Gustura bizi naiz Elgoibarren, baina ondarrutarra naiz, eta kostaldeko herriek beste giro bat daukate. Joango nintzateke Ondarrura, baina ez bizi-kalitate hobe duelako, familia bertan daukadalako baizik.

**Ma JESUS RODRIGUEZ**

38 urte, erizaina


Bizi-kalitate ona eskaintzen du Elgoibarrek. Etxebizitza berri ugari, eskailera mekanikoak, eta proiektu ugari daude martxan. Ni Durangokoa naiz, eta herri lauak nahiago ditut, baina Elgoibarren gustura biziko nintzateke.



**st**

### ESKERTZA

2002ko abenduaren 22an, 70 urte zituela hil zen **PEDRO ETXANIZ AIZPURUR**Aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





# BaRRRen

## Otsailaren 8an ospatuko da Santa Ageda eguna Aurtengoan Musika Eskola eta Kilimon futbol taldearentzat izango da dirua

**D**atorren otsai larren 8an, Santa Ageda eguna ospatuko da. Urtero bezala, bi taldetan banatuta goizean goiz aterako dira, baserriz baserri koplakantari. Mendaroko herri txikia da, baina baserri ugari ditu, eta Santa Eskean baserri guztietatik pasatzen da. Kantu eta umore artean eskatzen zaie dirua. Arratsalde partean, denak batera Mendaroko kale guztiak kantuz jantziko dituzte. Aurtengoan batuko den dirua, Musika eskolarentzat eta Kilimon futbol taldearentzat izango da. Musika Eskola iaz jarri zen martxan. Gero eta jende gehiago ari da musika ikasten, eta instrumentuak erosteko dirua behar dute. Kilimon fut-



bol taldeari dagokionean, iaz ezin izan zioten mailari eutsi eta jokalaria falta zela-eta, ezin izan zuten ekipoa osatu. Datorren denboraldiari begira, talde berria osatzea da helburua.

Santa Eskean parte hartu nahi duten guztiak, Ormola tabernan edo Aizpe Elkartearen eman dezakete izena otsailaren 6a baino lehen.

## Mendaroko komentu zaharra zegoen tokian Gazte Lekua eraikiko dute

Agustina mojen komentuko kapila zegoen tokian, Gazte Lekua eta antzoki moduan erabiliko den gela bat eraikiko dituzte. Proiektuak 1.250.000 euro baino gehiagoko kostua dauka. Gipuzkoako Foru Aldundiak, gazte ekimenak bultzatzeko 2001-2004 plana jarri zuen martxan. Honen helburua 12 eta 30 urte bitarteko gazteentzako ekintza sozio kulturalak bultzatzea da. Honela, Mendaroko Udalak Gazte Lekua eraikitzea erabaki du. Eraikin handia izango da, eta bi zati bereiztuko dira. Gazte Lekua alde batetik, eta antzoki moduan erabiliko den beste gela bat. Zinema, antzerkia edota kontzertuak eskaintzeko balioko duen antzokia izango da. 170 eserleku izango ditu bi pisutan banatuta. Proiektu honek guztiak 1.255.881 euroko aurrekontua izango du.



## In Leike taldearekin Luz Ardidenera

In Leike taldeak Luz Ardidenera joateko irteera antolatu du, datorren otsailaren 7tik 9ra. Prezioa 105 eurokoa izango da, eta ikasle eta langabetuentzat 90 eurokoa. Prezio honen barnean, bi gau, bi gosari, afari bat, autobusa, bi egunetarako forfait-a eta segurua sartzen dira. Bestalde, Mendaroko emakume batek In Leike taldeko partaideak txalotu nahi ditu, antolatzen dituzten ekintza guztiengatik, eta batez ere, AEKren bitartez, euskararen alde egiten duten apustuagatik. Orain arte, inork ez du horrelakorik lortu, ezta Udaletxeko Euskara Batzordekoek ere. Zorionak eta jarraitu horrela.

## Mendaroko populazioa cYol 0,55 hazi da 1996tik 2002ra

Urteen poderioz Mendaroko asko handitu da. 1996. urtean 1.308 biztanle zituen, 2001ean 1.417, eta, INEk (Instituto Nacional de Estadística) argitaratu dituen azken datuen arabera, 2002. urtean 1.446 dira Mendaroko biztanleak. Orokorrean, % 10,55ean egin du gora Mendaroko populazioak 1996tik 2002ra. Datu hauek adierazten duten moduan, Gipuzkoako populazio orokorrek gora egin du 2002. urtean. Kostaldeko herriak izan dira gorakada handiena jasan dutenak, Donostia, Zarautz eta Hondarribia, batez ere. Barnealdekoak, berriz, behera egin dute. Hauen artean, Eibar eta Arrasate izan dira kaltetuenak.

## Margo, eskulan eta dekorazio erakusketa

Mendaroko Udalak margo, eskulan eta dekorazio tailerrak antolatzeko diru laguntzak ematen ditu. Orain, tailer horietan eginiko lan guztiak erakusketa antolatu du. Otsailaren 14an hasita, bi aste buruan egongo dira lanak ikusgai, Udaletxeko Arno-Otaerre aretoan. Bide batez, datorren urteko tailerretan izena emateko epea, otsailean irekiko dela gogorarazi nahi dute.



# kartea

## at eginik



Agustin Urbieta, elkarteko kidea

taide izateagatik prezio bereziak izaten dituztela.

### Zuzendaritza berria

Aurtengo Batzar Nagusian zuzendaritza berria izendatu dute. Juantxo Fernandez, Gorka Zabala, Felipe Castro eta Juan Migel Arriola osatzen dute zuzendaritza berria. Aipatu beharra dago bestalde, Sendi-Anaitasuna Elkarteak irabaziak izan dituela 2002. urtean. 23.328,77 euroko sarrerak izan ditu, eta gastuak 22.223, 19 eurokoak izan dira, beraz, 1105, 58 euroko irabaziak izan ditu.

**Bazkideak:** 973

**Heriotza bajak:** 21

**Bestelako bajak:** 6

**Bazkide berriak:** 20

## ELKARTEAREN ARAUAK

**1. Kidetza:** Sendi-Anaitasuna Elkarte familia elkartuek osatzen dute, eta bere kideen hileta eta lur ematearen gastuak ordaintzea da bere helburua. Elkarteko kide izateko, ezinbestekoa da Mendaron bizi eta bertan erroldatuta egotea.

**2. Izen-ematea:** Elkarteko kide izateko, eskatzaileak nahikoa du Batzordeak emango dion txartel bat izenpetu eta sinatzea. Bera izango da familia burua, eta gainontzeko kideak mozkindunak. Familia eta kidearekin bizi diren pertsona guztiak izan daitezke mozkindunak, beti ere, Batzordeak onartuko ditu. Gaixoei ez zaie kidezarik emango. Hala ere, gaixoa baldintzapean kide daiteke, hau da, izena eman eta urtebetean hilko balitz, ezbeharrean ez bada behintzat, ez du indemnizaziorik jasoko, eta ordaindutako kuotak ez zaizkio itzuliko. Urtebete igaro ostean, gaixoa elkartekide izango da, eta beste kide guztien eskubide berberak izango ditu.

Hirurogeita hamar urtetik gorakoak ezingo dira elkarte-kide izan, bi urte igaro arte.

### 3. Sendi-Anaitasuna Elkarteko bazkide izango dira:

- Beharturik beste herri batera joan beharra izan dutenak, baina Mendaron erroldatuta jarraitzen dutenak. (Zaharren Egoitza batera, ospitalera...)

- Mendaron bizi arren, bertan ez dauden pertsonak. (Zerbitzu militarrean, ikasketak kanpoan egiten dituztena\_k, lan harremanak...)

- Mendarotik joaten diren pertsonak, eskubide guztiak galduko ditu. 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak baldintza desberdinak dituzte: Gortxienez 25 urtetan kuota ordaindu badu kide izaten jarraituko du, hala ere, hileta Mendaron egin beharko da, eta gorpuren desplazamendua familiak ordainduko du.



### 4. Kuotak

Ordaindu beharreko kuota indibiduala izango da. Kuota heriotza gertatzen den unean ordainduko da. Kideren batek kuota ordaindu nahi ez badu, kideasuna galduko du. Berriz kide izateko, Elkartetik kanpo egon den denboraldiko kuota guztiak, eta 3 euro gehiago ordaindu beharko ditu. Agirien kobratzaileak batutako diruaren %10a jasoko du.

**5. Kidetza lagatzeko:** Erabakia idatziz aurkeztu beharko zaio batzordeari, Lehen Batzar Nagusian. Etxeko kideren bat hil zaionak ezingo du baja eman, jaso duen diru kopurua itzultzen ez badu behintzat. Hildakoek, heriotzaren egunean jasoko dute baja.

**6. Batzar Nagusiak:** Ohiko Batzar Nagusia urteko bigarren igandean ospatuko da. Familia buru diren guztiak agertu behar dute Batzar honetara. Akordio guztiak boto bidez onartuko dira. Ezohiko batzarrak Elkarteko lehendakariak beharrezko jotzen duenean egingo dira.

**7. Batzordea:** Lau kidek osatuko dute: Lehendakaria, idazkaria eta bi bokal. Urteroko Batzar Nagusian lehendakaria izendatuko da, eta honek aukeratuko ditu bere laguntzaileak.

# Erretratu zaharra



# H

ilabete honetako erretratu zaharra Libe Iriondo Mugerzak laga digu. 1947. urtekoa da argazkia, eta Mendaroko mojen eskolan aterata dago. Argazkian ikusten ditugun neskatila hauek, "Las pequeñitas hormiguistas" izeneneko musikala egin zuten egun honetan. Gogora dezagun zein diren erretratuan agertzen direnak. Ezkerretik eskumara: Blankita Arriola, Libe Iriondo, Lourdes Arri-llaga, Maria Luisa Sarobe, Ana Mari Epelde, Fuljen Muguruza, Pilartxo Arrieta eta Mariatxo Berasaluze.

## EUSKARA IKASTAROAK

ikasle, guraso  
eta langabetuek

**MATRIKULA**

**ERDIA**

(udalaren laguntzaz)

- Maila guztiak
- Perfilak, EGA



**IzEna Emateko EpEa otsailaren 14ra arte**

Elgoibarko akeuskaltegia

Plaza Txikia, 3 - Tel.: 943 74 13 32

[elgoibar@aeknet.net](mailto:elgoibar@aeknet.net)

**aek**



# BASKO RENT

**MANTE DU EZA U ZURE AUTOA GARBI eta PREST!**



**GARBIKETA AUTOMATIKO  
PUBLIKOA**




**GARBIKETA  
2,50 C**

**GARBIKETA LEHORKETA  
ARGIZARIA EMATEA  
3,50 C**



**ESKUZ EGINIKO  
GARBIKETA**

**GARBIKETA  
BEREZIA  
4,50**



**HORREZ GAIN:**

OlioarEn Edo filtroen aldakEta  
PneumatikoEn azterketa Eta aldakEta  
Balazten Eta EsEkiduraren aztErkEta  
MantEnimEndu orokorra


**SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE**

**7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar**

**ter 902 103 287**

Matrikulazioa otsailaren 3tik 14ra

Tel.: 943 74 13 31



# GUREKIN HASI



# GUREKIN

7,1

[nsp42e1g@planalfa.es](mailto:nsp42e1g@planalfa.es)

11i

Att wAsTETX1A




Elgoibar

## Elgoibarko Euskal Eskola Publikoaren erakusketa izango da ikusgai urtarrilaren 31tik aurrera Kultur Etxean

**N**aur arratsaldeko 19:00etan hasi **Veta** datorren otsailaren 7ra arte, Euskal Eskola Publikoaren erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxean, Erakusketa honetan Ikastetxe bakoitzeko lanen eta proiektuen bidez, gaur egun Eskola Publikoak dituen metodologia eta lan egiteko era ezberdinak ezagutzeko aukera izango du herriak. Bestalde Ikastetxe hauetan seme-alabak dituzten gurasoek, lan, argazki eta bideoen bidez, irakasleek ikasleekin konpartitzen dituzten une bereziak ikusi ahal izango dituzte.

1998ko otsailean antolatu zuten Elgoibarko Institutuak eta Herri Eskolak Elgoibarko Eskola Publikoaren lehenengo erakusketa. Lau urte pasatu dira, eta gainera Haur Eskolen egoera legezatzten duen 0-3 zikloko dekretua atera denez, Elgoibarko Institutuak, Udal Haur Eskolak eta Herri Eskolak Elgoibarko Euskal eskola Publikoaren eskaintza bateratua aurkeztea erabaki dute. Asteazken arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, eta asteburuetan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara izango dira bisita orduak,



### ESKOLA KIROLA

#### AGENDA

Otsailak 1, 4. Jardunaldia

#### SASKIBALOA, Ikastolan

- Alebin mutilak ■
- 9:00 Herri Eskola A- Ikastola B
- 11:15 Ikastola A- Herri Eskola B
- 12:00 Mendara B- Pilar A
- 12:45 Pilar B- Ikastola C
- Alebin neskek ■
- 9:45 Herri Eskola - Pilar A
- 10:30 Ikastola A- Ikastola B
- Pilar B (Atsedena)

#### FUTBOL 7, Mintxelan

- Infantil mutilak ■
- 11:00 Ikastola A- Insti A
- 12:00 Ikastola B- Pilar A
- Insti B (Atsedena)
- Infantil neskek ■
- 11:00 Ikastola A- Insti A
- 12:00 Ikastola B- Pilar A
- Pilar B (Atsedena)

#### ESKUBALOA, Ikastolan

- Benjaminak ■
- 10:00 Ikastola D- Pilar C
- 10:30 Herri Eskola A- Pilar A
- 11:00 Herri Eskola C- Ikastola B
- 11:30 Ikastola E - Pilar D
- 12:00 Herri Eskola B- Mendara A
- 12:30 Ikastola A- Ikastola C



### Ikastolako ikasleek jaialdia eskaini zuten joan zen ostiralean

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek, jaialdia eskaini zuten joan zen ostiralean, urtarrilak 24, Ikastolako frontoian. 2 urteko haurretatik hasi eta 6. mailara artekoek dantza, kantu eta antzerkirako daukaten abilezia erakutsi zuten. Era guztietako ikuskizunak eskaini zituzten, eta batzuk, artista izateko benetako doaiak dituztela erakutsi zuten. Honekin batera, Batxilergoko ikasleek ikasbidairako dirua ateratzeko asmoz, taberna txiki bat jarri zuten frontoian pintxoak eta edariak salduz. Dударik gabe, frontoiko giro hotza epeltzea lortu zuten guztien artean, eta bertara inguratu ziren senide, lagun eta irakasleek ez zuten aspertzeko unerik izan.

### Herri Eskolako ikasle eta gurasoak Garagoitxi mendian izan ziren


Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, ikasle eta gurasoak Garagoitxi mendian izan ziren joan zen urtarrilaren 26an. Plaza Handitik irten, eta kotxez igo ziren San Pedroraino, eta handik oinez, Kalamua eta Akondia artean dagoen Garagoitxi mendiraino. Itzuleran, San Pedron egin zuten hamaiketako indarrak berritzeko. Eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere, 30 pertsona bildu ziren, eta egun polita igaro zuten.



**MIKE TAGG, KORRIKALARI INGELESA**

## "Mugerza krosa horren herri txikiak antolatzeak harritu ninduen"

*Mike Tagg 56 urteko britainiarra ezaguna izango da elgoibartar askorentzat, batez ere 50 urtetik gorakoentzat. 1971. urtean Mugerza krosean hartu zuen parte eta bigarren postuan amaitu zuen. Munduko kros txapelketa zen eta Elgoibarkoa Espainian parte hartu eta irabazi ez zuen lasterketa bakarra izan zen. Dena dela, hemen jaso zuen giza-tratua eta giroa inon ezagutu duen onena izan dela aipatzen du. Norwich hirian bizi da eta egun batzuk pasa ditu Luis Santolaya elgoibartarraren etxean. Luisek lagundu digu itzulpen lanetan eta elkarrizketa hau egin ahal izan dugu.*



**Zenbat aldiz hartu zenuen parte Mugerza Krosean?** 71n bakarrik. Bigarren postuan amaitu nuen, Mariano Harok 10 metroko aldeaz irabazi baitzidan. Espainian irabazi ez nuen lasterketa bakarra izan zen. Madrilen, Bartzelonan, Granollersen eta Lasarten irabazi nituen lasterketak.

**Beraz, ez duzu orotzapen onik izango Mugerza krosaz?** Mugerza memoriale korritu izan dudan lasterketa txarrena eta onena izan zen. Txarrena Espainian izan nuen porrot bakarra izan zelako eta onena, berriz, jendearengandik jaso nuen tratuatik. Oso gogoko nuen Euskal Herrian korrika egitea. Zaletu asko dago eta dakiena gainera.

**Lasterketa gogorra izan al zen?** Bai, nire ezaugarri fisiko eta saltaka egiteko estiloarentzat ez baitzen lasterketarik egokiena. Atleta altua izanik nire oinkada luzeen abantaila aprobetxatzeko belar askoko zirkuitoak ziren onenak, Lasartekoa modukoak.

**Zein dira zure karreraren lortu zenituen garaipen garrantzitsuenak?** Nire anbizio nagusia Britainia Handiko txapelketa irabaztea zen, garai hartan britainiarrak baitziren kros korrikalari onenak. 69an lortu nuen eta 40 segunduko aldea atera nion bigarrenari. 66an junior mailako Munduko Kros Txapelketa irabazi nuen. 1970ean Munduko Kros Txapelketa irabazi nuen Vichyn (Frantzia). Ondoren, motibaziorik gabe geratu nintzen eta 73an goi mailan saltaka egiteari laga nion. Dena dela, oraindik ere jarraitzen dut "jogging" egiten. 1968an Mexikoko Joku Olinpikoetan hartu nuen parte 10.000 metrotako lasterketan.

**Atletismoa asko aldatu al da zure garaietatik?** Norberak bere herrialdea defendatzean sentitzen zuen harrotasuna desagertu dela uste dut. Gure garaian ez zegoen, baina orain dirua da nagusi.

**Zerk harritu zintuen Elgoibarrera lehen aldiz etorri zinenean?** Nola zitekeen

Mugerza krosa moduko lasterketa garrantzitsua horren herri txikiak antolatzea.

**Asko aldatu al da Elgoibar?** Herriaren itxura, eraikinak-eta, asko aldatu dira, baina garrantzitsuena, hau da, jendea ez da batere aldatu. Lehen aldiz etorri nintzenean nabaritu nuen berotasun berdina somatzen dut jendearengan. Bestalde, horren herri txikia izanik, kirol arloan erraztasun asko eskaintzen ditu Elgoibarrek: igeriketa, futbola, eskubaloia, gimnasioak, atletismoa...

**Jarraitu al duzu Mugerza Krosa azken urteotan?** Oraindik ere lasterketa oso gogorra izaten jarraitzen du. Mintxetako ibilbidea ezagutzen dut, duela 2 urte egin bainuen Luis Santolayaren laguntzarekin.

**Askotan itzuli al zara Elgoibarrera?** Bai ia urtero saiatzen gara bueltatxoren bat ematen. Semeak ere ibili izan dira San Bartolometako sokamuturrean.

**Neguko menu bereziak  
12 euro**

**orain V9an<sup>de</sup>  
golieton ere zobc:11\kil**

Basarte Auzea, 4  
Td-f\_ FaX, 943 743 426  
20870 Eloibar



**JATETXEA**



1A  
Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX

## 108 lagun izan ziren Urbasan Morkaikorekin

Hurrengo irteera Bagneres de Luchonera izango da



**A**uakasta itzela izan zuen Morkaiko Mendizale Elkarteak Urbasako mendilerora antolatu zuen azken irteerak. Guztira 106 lagun ausartu ziren euriari eta behelainoari aurre eginez 25-28 kilometro inguruko trabesia egitera Nafarroako txoko ederrenetarikoa. Elgoibartarrek Eulateko (Urbasatik oso gertu dagoen Ameskoa bailaran) bi gidari nafarren laguntza izan zuten. Alberto eta Jose Javier izan ziren elgoibartarrak bide onetik eramane zituzten "sherpak". Lizarragako portuan hasi zuten ibilaldia eta Urederra ibaiaren jaiotzaren gainean dagoen "Balcon de Pilatos" ikusgarrian amaitu zuten. Sei ordu inguruko ibilaldia

bide lau eta erosoan egin zuten. Tartean, Dulantz Tontorra (1,242 m.) eta Krezmendi ingurua (1.300 m) pasa zituzten. Mendizaleetako batek orkatilan hartu zuen min eta lau lagun bidetik desbideratu eta Irantzuko monastegira jeitsi ziren. Zorionez ez zen ezer larririk gertatu. Azkenik, Morkaikoren zuzendaritzak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei partaidetzagatik eta eguraldia umore onez gairiditzezagatik. Baita bi napar lagun-gidariei ere beraien ezinbesteko laguntzagatik ere. Bestalde, Morkaikoren hurrengo irteera otsailaren 22an eta 23an izango da. Eskiartzera joateko irteera izango da Bagneres de Luchon eski estaziora.

## Eskualdeko Areto Futbol txapelketako taldeak kopa jokatzeko hasiko dira zapatu honetan

Liga txapelketa amaitu ostean, Eskualdeko Areto Futbol Txapelketaren 4. edizioako talde partaideak Kopa Txapelketan murgilduko dira zapatu honetan, otsailak 1, hasita. Bailerako 50 taldek hartu dute parte ligan, tartean 6 talde elgoibartarrek. Gainera, fin aritu dira. Z.R.0 taldea zen lehen mailan zebilen bakarra eta 5. postuan amaitu zuen 11 partidutatik 6 irabazi 4 galdu eta bat berdindu ostean. Bigarren mailan, berriz, Aizkorak Mendibil taldea

geratu da lehen postuan 7 garaipen, 3 porrot eta berdinketa bakarrarekin. Emaizta honi esker lehen mailara igotzea lortu dute. Kashima Brewers's eta Vulthur Griphus taldeak hirugarren eta laugarren sailkatu dira, hurrenez hurren. Spartak Pitxote taldeak ere hirugarren mailatik bigarren mailara igotzea lortu du, hirugarren maila lidergoan amaitu ondoren. Azkenik, Kunta Kinte taldeak laugarren mailako liga irabazi du eta hirugarren mailara igotzea lortu du.

## EMAITZAK

### Futbola

Bergara 1- **Haundi 5 (Pref.)**  
Elgoibar 3- Segura **4 (1. erreg.)**  
Elgoibar 1- Hernani **1 (Inf.)**  
Elgoibar 1- Santo Tomas Lizeoa **1 (Jub.)**  
Elgoibar 0- Antoniano **3 (Kad.)**  
Elgoibar 1- Almen **0 (Neskak)**

### Esku pilota

**Udaberri Txapelketa**  
Eibar a **14** - Lagunak I **22 (Nagusiak)**  
Eibar b 0- Lagunak II **22 (Nagusiak)**  
Murumendi **22** - Lagunak **118 (Jub.)**  
igeldo **22** - Lagunak **118 (Kad.)**  
San Esteban **22** - Lagunak **117 (Kad.)**  
**Gipuzkoako Txapelketa**  
Lagunak **116** - Antiguokoak **18 (Inf.)**

### Eskubaloia

Pagoaga Elg.12 - Askartza **22 (Kad. nesk.)**  
Cometel Elg. **12** - Askartza **11 (Jub. nesk.)**  
Egia **27** - Tecnifuelle Elg. **20 (Sen. mut.)**  
Urduliz 31- Tecnomeca Elg. **22 (Kad. mut.)**  
Urduliz **27** - Pneumax Elg. **32 (Jub. mut.)**

### Areto Futbola

Lanbroa 3- Zaldibi **3 (1. maila)**  
Gailurrerantz 3 - Lojantzi **1 (jub.)**

### Saskibaloia

Lojantzi Elg. **75** - Jostaldi **49**

### Idarraga kafeak 6. saria

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 02/03	
JOKALARIA	PUNTUAK
1-Elkoro	36
2-1. Gurrutxaga	28
3-Jakes	21
4-Gotzon	20
5-Igartua	19
6-Arenas	19
7-Caro	14
8-Navarrete	11

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

**Zapatua, 1**  
16:30 Haundi - Real Union (Pref.)  
**Domekia, 2**  
12:00 Elgoibar - Beasain (Jub.)  
16:00 Elgoibar - Urola (Neskak)

### Eskubaloia, Kiroldegian

**Zapatua, 1**  
17:30 Tecnomeca Elg. - Askartza (Kad. mut.)  
18:45 Pneumax Elg. - Askartza (Jub. mut.)  
**Domekia, 2**  
11:00 Gaur Elg. - Egia (Jub.)  
12:30 Tecnifuelle - Portugalete (Sen. mut.)

### Esku pilota, Ikastolan

**Barixakua, 31**  
21:00 Lagunak - Andazte (Jub.)  
21:30 Lagunak - Elordi (Kad.)  
22:00 Lagunak I - Olalde (Nag.)  
22:45 Lagunak II - Zumaiako (Nag.)  
**Zapatua, 1**  
11:00 Lagunak I - Zubieta (Inf.)  
11:45 Lagunak II - Zumaiako (Kad.)

### Areto futbola, Kiroldegian

**Barixakua, 31**  
22:10 Lanbroa - Irizabal Arrainak (1. maila)  
**Zapatua, 1**  
16:00 Kenci Elg. - C.D. Amaya Iruña (Naz. A)



## Agurrak

\*Zorionak **Enara Arquillori**, hilaren 24an urteak bete zituelako. Ikastolako DBH 2koen partez.



\* Zorionak **Miren**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Familiakoen partez muxu potolo bat.



• Zorionak **Amaia Aroz-nari**, otsailaren 4an 4 urte beteko dituelako. Familiakoen partez.



\*Zorionak atzoko partez **Amoskatei!** Zure koadrilakoen partez, eta batez ere, zure kuttunaren izenean. Muxu handi bat eta ondo pasa!



• Zorionak zuri, zorionak beti, zorionak **bikote panpoxa**. Ikastolako laguntxoen partez.



sZorionak **Jon Ander**, bihar 7 urte beteko dituzulako. Guraso eta familiakoen partez, ondo pasa.



• Zorionak **Jon** eta **Nagore Larrañagari**, hilaren 6an eta gaur urteak bete dituztelako. Gurasoen eta etxekoen partez.

## BEKAK

## Artium

Arte Ederretan, Artearen Historian zein Bibliotekonomian lizentziatu edo diplomatuentzako bekak. Arte garaikidearen inguruan ikertzea eta patrimonio dokumentalari buruzko informazioa biltzea da helburua. Epea: martxoak 1.

## Doktorego tesiak

Ramon Areces fundazioak Biologia Molekular, Zelular eta Genetikoan, Fisika eta Matematikan, eta Elikagaien Zientzian eta Teknologiaren arloetan ikertu edo doktorego tesia egin nahi duten gazte graduatuei zuzendutako bekak eskaini ditu. Epea: maiatzaren 12tik 26ra.

## LEHIAKETAK

## Literatura

II. Nikolas Ormaetxea "Orixe" literatura lehiaketa. Bi sailetan banatuta dago: poesia eta ipuin laburra. Gaia librea. Epea: otsailak 28.

## LANA

## 3 informatikari

Donostiako Udalak Informatika Zentrarako hiru informatikari lanpostu betetzeko oposizio lehiaketa antolatuta du. Informatikako goi mailako titulazioa eta euskarako 3. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak. Epea: otsailak 4.

## Administrari laguntzailea

Deba Garaiko Mankomunitatean administrari lanpostu bat betetzeko oposizio lehiaketa. Lanaldi erdia. Eskola Graduatua edo Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua, eta euskarako 3. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak.

## Administrari laguntzailea

Tolosako Udalean administrari laguntzaile postua betetzeko oposizio lehiaketa. Eskola Graduatua edo baliokidea, eta euskarako 3. hizkuntza eskakizuna beharrezkoak. Epea: otsailak 24.

## Turismo-animatzaileak

Saint Michel hotelak turismo-animatzaileak behar ditu Mallorkarako, 2003 denboraldirako. 3 animazio buru, helduentzako 24 animatzaile eta haurrentzako 12 animatzaile. Epea: martxoak 28.

Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

**MATRIKULA LIBREA 2002/03**  
ZALDIBAR, MALLABIA,  
ERMUA ETA DEBA  
BAILARAN bizi diren  
ikasleak

**EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA**  
Jardiñeta, 3 bis  
20600 EIBAR

- MATRIKULA-SOBREAK JASO: Otsailaren 3tik 21era.
- TOKIA: H.E.0.-eko Idazkaritzan
- MATRIKULA BURUTU: Sobren adierazitako egun eta orduan.

**N.A.N.a BEHARREZKOA DA**

Argibide gehiago 943 20 06 18 telefono zenbakian edo Eskolako webgunean:  
[www.euskalnet.net/eoieibar](http://www.euskalnet.net/eoieibar)

## Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	FARMAZIAK
31 Etxeberria (Santa Ana kalean)	Etxeberria	IBAÑEZ, Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
1 Etxeberria (Errosario kalean)	Fernandez	FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
2 Fernandez	Fernandez	ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
3 Yudego	Yudego	*eguerdiko 2ak arte
4 Zabaleta	Zabaleta	
5 Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria	
6 Ibañez	Ibañez	<b>OKINDEGIA</b>
7 Bidasolo	Bidasolo	2 igandea Fotero

### 31 BARIXAKUA

19:00 ELGOIBARKO EUSKAL  
ESKOLA PUBLIKOAREN  
ERAKUSKETA  
Haur Eskola, Herri Eskola eta Institutua  
Kultur Etxeko sotoan  
Otsailaren 7ra arte

### 1 ZAPATUA

9:00 SANTA ESKEA  
Elgoibarko kale eta auzoetan  
Taldea: "Etxegina"  
Irteera: Bolatokitik

### 4 MARTITZENA

14:30 SANTA ESKEA  
Baserriz baserri  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra  
Irteera: Plaza Handitik  
15:30 SANTA ESKEA  
Ikastolako haurrak kantari kalez kale

### 5 EGUAZTENA

18:00 HITZALDIA  
Gaia: "Ipuin Kontalaria"  
Kontalaria: Pello Añorga, ipuin  
kontalaria eta unibertsitateko irakaslea  
Antolatzailea

### 7 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA  
Antzezlanak: "Ai ama"  
Taldea: Hika Antzerki Taldea  
Herriko Antzokian

### ANTZERKIA

"Ai, Ama!"

Hika teatroa taldeak "Ai, Ama!"  
(euskaraz) antzezlanak taularatuko du Herriko  
Antzokian otsailaren 7an, barixakuan,  
22.15ean. Arantxa Iturberen "Ai, ama!"  
liburuan oinarritua dago Agurtzane  
Intxaurren zuzen tzen duen antzezlanak.  
Akoreak Pilar Rodriguez, Miren Gojenola eta  
Ainhoa Aierbe dira. Sarrerak aurrez egongo  
dira salgai 6 eurotan, Kultur Etxean, goizez.

### MATRIKULAZIOAK

Matrikulazioa zabalik Debabe  
euskaltegia  
"DEB ABE" Udal Euskaltegien  
Mankomunitateak jakinarazten du otsaileko  
matrikula ireki duela. Izen ematea  
urtarrilaren 20tik otsailaren 7ra bitartean  
izango da. Honakoa da eskaintza:  
Euskalduntze eta EGA. Hizkuntza  
eskakizunak: Administrazioa eta Hezkuntza.  
Ikastaro bereziak ikastetxe, lantegi eta guraso  
taldeentzat. Prezio bereziak ikasle, langabetu,  
jubilatuta eta guraso taldeentzat. Interesatuak  
pasa Udal Euskaltegitik edo deitu telefono  
honetara: 943 74 27 31.

ZINE  
kluba

5410  
PL IIS  
tal

### "11-09-01"

Zuzendaria: 11 zuzendari ezberdinek zuzendua  
Antzezleak: Dokumentala da.

11 zuzendari ezberdinek 11 minutuko 11 istorio desberdin kontatzen  
dizkigute New Yorkeko dorre bikien aurkako erasoaren inguruan. Historia  
aldatu zuen gertakariak nazioarteko politikan ere eragin itzela izan du.  
Artea ere ez da eskuak gurutzatuta geratu. Filme honetan, Bosniako  
emakumeek, Bigarren Mundu Gerrako soldadu japoniarrek, Londresen  
exiliatutako txiletarrek, Estatu Batuetako musulmanek, Iraneko haurrek  
eta beste hainbat giza taldek erasoaren eta honen ondorioen inguruan  
duten ikuspuntua azaltzen da.



## JAIK

### Barrikotea

Kimetz Elkarreak Barrikotearen 8. edizioa antolatu du aurten. Otsailaren 8an, zapatuan izango da 21:00etatik aurrera Kimetzen. Izena ohizko lekuetan eman daiteke, baina lekua mugatua denez tiketak lehenbailehen erostea gomendatzen da. Menua sagardotegietako ohikoa izango da: bakailao tortila, txuleta erreak, gazta, intxaurrak eta menbriloa. Prezioa 15 eurotako izango da. Guztira 85 litroko sagardo kupela amaitzea espero dute.

## IKASTAROK

### Masaje ikastaroa

Surya belardendak antolatuta masaje ikastaroa hasiko da otsailaren lan, zapatuan, Bederatzi larunbateko iraupena izango du ikastaroak eta masaia teknika ezberdinak irakatsiko dira, besteak beste. Klaseen ordutegia 10:00etatik 12:30etara izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero edio izena emateko: 943 74 25 34 edo 626 79 50 24 telefonoetara deitu.

### Autoestima eta Reiki ikastaroak

Aubixa baserriak autoestima eta Reiki ikastaroak antolatu ditu otsailaren 9, 16 eta 23an. Begoña Guerra izango da irakaslea eta klaseak igandetan izango dira 10:00etatik 13:00etara. Izena emateko edo informazio gehiagorako: 943 74 19 09 telefonora deitu.

## IRTEERAK

### Lourdesera bidaia

Datorren otsailaren 11n, martitzenean, Lourdesko Amabirjinaren Eguna dela-eta, autobusa irtengo da Elgoibartik Lourdesera (Frantzia). Prezioa 25,50 eurotako izango da. Prezioaren barnean bidaia eta bazkaria sartuta daude. Interesatuek honako telefonoetara dei egin dezakete: 943 74 08 22 edo 943 74 15 22.

## JARDUNALDIAK

### Herri Eskolako Gurasoen jardunaldiak

Elgoibarko Herri Eskolako Gurasoen Elkarreak, Kalamuak, Gurasoen V. Jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauekin guraso moduan kezka eta zalantza sortzen duten gaiak sakontzeaz gain, seme-alabekin une atsegin bat pasatzea da helburua. Otsailaren 5ean, domekan, ipuin kontalaritzari buruzko hitzaldia eskeiniko du Peio Añorga ipuin kontalari eta Unibertsitateko irakasleak Kultur Etxean. Arratsaldeko 18:00etan 5 urteko haurren aurrean hitz egingo du. 18:30ean 5 urtetik gorako haurrentzat eta 19:15etatik aurrera gurasoei ipuin kontaketa buruz dituzten zalantzak argitzen saiatuko da. Otsailaren 12an, asteazkenean, berriz, "Eskolaz kanpoko ekintzak" izango da Isabel Gonzalez psikologoak eskainiko duen hitzaldia, Arratsaldeko 18:00etan izango da Kultur Etxean. Besteak beste, noiz hasi ekintza hauekin?, Zenbat denbora emango diegu?, Nork aukeratzen ditu?. Eta jolasteko denbora zer? Galderak azaltzen saiatuko da. Herriko ikastetxe eta instituzio guztiak daude gonbidatuta.

# zine

## ELGOIBAR, Herriko Antzokian

### "Deuda de sangre"

31, barixakua: 22:15  
1, zapatua: 19:30-22:15  
2, domekia: 19:30-22:15  
3, astelehena: 22:15

### "Cockstoppers"

2, domekia, 16:30

### "11-09-01" (Z.K.)

6, eguena: 22:15

## EIBAR

### Unzaga

31, barixakua: 19:30-22:15  
1, zapatua: 17:00-19:30-22:30  
2, domekia: 17:00-19:30-22:30  
3, astelehena: 19:30-22:15  
4, martitzena: 19:30-22:15  
5, eguazt\***40-22:15**

### "Los lunes al sol"

31, barixakua: 19:30-22:15  
1, zapatua: 17:00-19:30-22:15  
2, domekia: 17:00-19:30-22:15  
3, astelehena: 19:30-22:15  
4, martitzena: 19:30  
5, eguaztena: 19:30

## AZKOITIA

### Baztartxo

### "Harry Potter II"

31, barixakua: 22:00  
2, Domekia: 16:30-19:30  
3, astelehena: 20:00

HARRI



## "Deuda de sangre"

**Zuzendaria:** Clint Eastwood.

**Antzezleak:** Clint Eastwood, Wanda de Jesus, Jeff Daniels.

Terry McCaleb (Clint Eastwood) FBIko ikertzaile beteteranoa da. Justiziazale amorratua da eta ez du parekorik gaizkileen lorratzak jarraitu eta atzemateko orduan. Bere azken kasua argitzekotan zebilela, psikopata hiltzaile baten atxiloketa, alegia, bihotzekoak emango dio eta berak nahi baino lehenago jubilatzerara behartuko dute. Bi urte geroago ezezagun batek sekretu baten berri emango dio, bera salbatu zuen gizona hiltzaile batek hil zuen. McCaleb hiltzailea atzematen saiatuko da, bere kardiologoaren esanei entzungor eginez.

# NINEA



# A

ste honetako erretratu zaharra Felix Etxeberriak laga digu. Gerra aurretik ateratako argazkia da, 1935. urte ingurukoa gutxi gora-behera. "Bonba" izeneko koadrila ageri zaigu bertan, herrian oso koadrila famatua izandakoa, alegia. Erretratua Plaza inguruan aterata dago, San Bartolome jaietan. Garai hartan ohitura zen bezala, atzeko aldean eszenatokia edo toldoa ipinita, festetara etortzen zen argazkilari batek ateratako argazkia da. Gogora dezagun zein diren argazkian ageri direnak.

Goian zutik, ezkerretik eskumara: Eulogio Oria (t), Ramon Canales, Jose Mari Mendizabal, Frantzisko Elortza (t) eta Jose Mari Urizar (eibartarra).

Behean makurtuta, ezkerretik eskumara: Jose Oria (t), Victor Rementería (t) eta Antonio Arrillaga (t).

**bonards**  
*a rmazo iak*

**29**  
...aukeratzea izango da nekezena

**MULTIOPTICAS**  
**UZURI**  
**1.A ZERBITZU OPTIKOETAN**

San Frantzisko, 21 - Tel.: 943 74 03 59  
**ELGOIBAR**

Ostolaza, 7 - Tel.: 943 19 21 92  
**DEBA**

Eskaintza hau 03/01/97etik 03/02/28ra bitartean egongo da indarrean.

 [www.multioplicas.com](http://www.multioplicas.com)  
Informa zaituz gure Kreditu Txartelen abantailez



**ZATOZ**  
**,Haur Hezkuntzako**  
**gela berriak eta**  
**haurtzaindegia**  
**IKUSTERA**

41%



elgoibar **ikastola**



144a0.44. E/4.4424

# INAUGURAZIOA

otsailaren 8an, 11.00etan



*INTEERALA  
 ETA ATSEEINA  
 ELISKARA  
 ELEANITZA  
 ESKAINTZA  
 INTEERALA  
 EELJNERATLJA  
 SEEIMENDLI  
 INDIBIDLIALIZATLIA*

**HAUR HEZKUNTZAKO MATRIKULAZRDA: <D>SAIREF` .1 3TIK I 4RA ARTE**

Pedro Miguel Urruzuno, Koop. / Ermuaran bide 7 - Posta 53 / 20870 Elgoibar - Gipuzkoa  
 Telefonua: 943 74 44 4 1 / FaHa: 943 74 84 36 / [elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)

(euskaraz)

AI AMA

H'ika Teatroa

Otsaiiek 7,  
ostiraia

Herriko Antzokian  
22:15ean



KÓ KÓ RÓ KÓ (euskaraz)

Ados Teatroa



Otsaitak 9,  
i\_andea

Herriko Antzokian  
16:30ean

Bi oilo gazeire, 14 akilbra zoiroak

"01,1 (\*e\_le\_ke o arraulEz.a ala oiloa?



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



SAREA